# anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA

2017ko otsailaren 17a
15. urtea
665. alea
www.anboto.org

TOKIKOM


## Kultura

Berrizko, Elorrioko eta Durangoko 20 eta 22 urte arteko musikariek osaturiko The Van taldeak irabazi du Zornotzako Maketa Lehiaketa > 11



# Maiatzaren 7a, erabaki gura dutenen eguna

Durangon, Zornotzan, Elorrion, Abadiñon eta Zaldibarren herri galdeketak egingo dituzte maiatzaren 7an. Durangaldeko Gure Esku Dago taldeak lehenengo agerraldia egin du, asteon, data gogoratu eta herrietako gaurkotasuna azaltzeko. > 2-3






## Triatloi taldea sortu dute Zornotzan

Zornotzako kirolzale batzuek iaztik buruan zerabilten ideia Amorebieta-Etxano Triatloi Taldean gorpuztu dute aurten. Asteburu honetan Sopelan jokatuko den proban estreinatuko dira. Talde berriak apurka-apurka euren errendimendua hobetzeko heldulekua eskainiko die, baina, horregaz batera, herrian triatloiarekiko zaletasuna sustatu gura dute. Beldurrak alboratuta, kirola serio hartzen duen edonoren eskura dagoela uste dute: "Berdin da lehenengo edo azkenengo gelditu. Triatloiagaz gozatzen dutenak edo parte hartzera animatzen diren denak txapeldunak dira gureтzat", azaldu du Jaione Agirre triatloi taldeko sortzaileetako batek. > 16


**Zaldibar > 7**
Eitzagarrek diote "babesgabe" daudela ETSren obren auzian

**Durango > 3**
Bakarrik bizi diren nagusiek laguntzak dituzte obrak egiteko

**Otxandio > 6**
Udalak berriztagarriak diren iturrietatik jasoko du argindarra

**Iurreta > 9**
Gaztelekua sortzeko eskaera egin dute 200 sinadura batuta

## Herririk herri




Durangaldeko Gure Esku Dago Taldeak eguaztenean Zornotzako pilotalekuan egindako agerraldiko irudia.

# Durangon, Zornotzan, Elorrion, Abadiñon eta Zaldibarren herri galdeketa egingo dute

### Durangaldeko Gure Esku Dago taldeak lehen agerraldia egin du maiatzaren 7ko galdeketa zabaltzeko

**DURANGALDEA** J. Derteano

Erabakitzeko Eskubidearen aldeko Gure Esku Dago dinamikek 120 bat herri galdeketa sustatuko dituzte aurtengo urtean. Galdegaia Euskal Herriko estatus politikoa izango da. Galdeketa horiek hiru egunetan banatuko dituzte, eta maiatzaren 7koa da denetan olaturik handiena. Durangaldeko bost herri egun horretara batu dira: Durango, Zornotza, Elorrio, Abadiño eta Zaldibar. Ildo horretatik, Durangaldeko Gure Esku Dago Taldeak lehen agerraldia egin du asteon, herri bakoitzak galdeketak gauzatzeko daraman bide propioa errespetatuz, elkarlanerako sortu duten bilgunea aurkezteko. "Dinamika bakoitza autonomia osoz lantzen ari da bere herrian galdeketarako bidea, nork bere errealitatea eta denborak dituela ulertuta. Baina abiadura desberdina badugu ere, denak bidelagun gara eta helmuga bera dugu: maiatzaren 7ko galdeketa", adierazi zuen Zornotzako taldeko Saioa Eguzkizak Zornotzako frontoian emandako prentsaurrekoan.

> "Abiadura desberdina badugu ere bidelagun gara eta helmuga bera dugu: maiatzaren 7ko galdeketa"

Horrela, Durangalderako agenda bat osatu dute, datozen asteetan jakinarazten joango direna. Aurreratu dutenez, Durangon hitzaldi bat antolatuko dute martxoan. Emakumezko hiru aurpegi ezagunek erabakitzeko eskubidearen gainean jardungo dute Plateruenean. Horrez gainera, kanpo komunikazioa eta zabalkundea modu koordinatuan eraman gura dituzte arlo batzuetan, datorren astean buzoiz buzoi banatuko duten diptiko informatiboa kasu.

## Sinadura bilketa

Herri galdeketara bidean, berau antolatzeko gomendioak jasotzen dituen protokoloa jarraitzen ari dira herri denak. Iaz, besteak beste Debagoiena eta Goierri eskualdeetan egindako herri galdeketetan erabili zuten protokolo bera da. Ez dago lege bati lotua, baina galdeketa seriotasun osoz eta ahalik eta zehatzen aurrera eramateko ibilbide orria markatzen du. Galdeketaren aldeko sinadura bilketa egitea da urratsetako bat. Durangon, Zornotzan eta Abadiñon amaitu dute prozesu hori, eta behar adinako sinadura kopurua batu dute. Erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritarren %5 Durangoren kasuan eta %10 Zornotza eta Abadiñoren kasuan (20.000 biztanletik beherakoak direlako). Orain, hiru herrien kasuan nork bere galdera erabakitzeko prozesua hasiko dute.

Elorrion dagoeneko aukeratu dute maiatzaren 7ra begirako galdera: *Euskal estatu burujabe bateko herritar izan gura duzu?* Urtarrilean egindako ekitaldi baten ostean sinadura bilketa hasi zuten, eta asteon jakinarazi dutenez, 700 sinadura batuta hilabete baino gutxiagoan lortu dute behar zuten sostengua. Gutxieneko sinadurak badituzten arren, bilketagaz jarraituko dutela jakinarazi dute.

## Zaldibarren, aurkezpena

Zaldibar izan da herri galdeketen bidera batu den eskualdeko azken herria. Hainbat herritar lanean dabiltza elkartea sortu, sinadurak batu eta maiatzaren 7rako prest egoteko. Ildo horretatik, otsailaren 24an, ostiralean, 18:30ean, herri aurkezpen bat egingo dute. Lehendakari Agirre parkean izango da eta, besteak beste, herriko elkarteko kideak gonbidatu dituzte.

## Maiatzaren 7ko olatua

Maiatzaren 7an 50 herri edo eskualdetan burutuko dira herri galdeketak. Durangaldeaz gainera, Debabarrenan (Deba, Elgoibar, Eibar…), Lea-Artibain (Markina-Xemein, Lekeitio, Ondarroa…), Uribe Kostan (Sopela, Plentzia…) eta Urola Kostan (Azkoitia, Zarautz…) egingo dira, besteak beste.

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2017ko otsailaren 17a
14. urtea - 665. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.
**Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi.
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

Laguntzaileak:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



***"Gero eta gehiago gara, baina erronkaren tamaina ikusita jende gehiago behar dugu"***

Andoni Iruarrizaga
DURANGO

**Zeintzuk dira zuen hurrengo pausoak?**
Galdeketa egunari begira lan taldeak osatu ditugu jada. Tartean, galdera erabakiko duen taldea. Talde honek formakuntza saio batzuk jasoko ditu, eta martxoaren amaierarako galdera prest egongo da.

**Jende nahiko zabiltzate?**
Gero eta gehiago gara, baina erronkaren tamaina ikusita herritar gehiago behar dira. Ez da ahaztu behar ekimen herritarra dela eta ez duela ez alderdi eta ez erakundeen laguntzarik. Gu martitzenero 19:00etan batzen gara Artekalen dugun lokalean, lehengo Hitz liburudendan. Atea irekita dago.

***"Martxoaren 25ean egun osoko jai bat antolatzeko lanean gabiltza"***

Maite Ingunza
ZORNOTZA



**Hainbat ekimen antolatzen zabiltzate, ezta?**
Bai. Alde batetik, lau otzara eder osatu ditugu herriko dendei esker, eta errifak atera ditugu. Bestetik, hilero herritarren aurrerako ekitaldi bat egitea erabaki dugu, giroa animatzeko. Esaterako, martxoaren 25ean egun osoko jai bat antolatzeko lanean gabiltza: mendi taldeak antolatutako martxa, musika kontzertuak…

**Gazte dezente dabil taldean.**
Galdera erronka handiegia zen sasoi batean genbiltzanontzat. Horregatik, herritarrei dei egin genien eta batzarrera 35 bat lagun batu ginen, asko gazteak. Pozgarria izan zen.



***"Zubiak eraikitzeko balio izan digu, eta horregatik jada merezi izan du"***

Ima Eguen
ELORRIO

**Beharrezkoak ziren 700 sinadurak batu dituzue.**
Pozik gaude, baina ez dugu 700egaz konformatu gura. Galdeketa egin duten herrietan esaten dute zenbat eta sinadura gehiago batu, partaidetzan igartzen dela. Beraz, martxoaren 10era arte ekingo diogu. Kanpaina antolatzen eta boluntario bila ere bagabiltza.

**Zergatik parte hartu?**
Partaidetza oso ona bada, politikariek ezingo dute beste aldera begiratu. Eragina eduki dezake. Bestalde, Elorrion, tentsioa baretu eta zubiak eraikitzeko balio izan digu, eta horregatik jada merezi izan du lan egitea.

***"Galdeketa antolatzea denon arteko elkarlana izan dadila gura dugu"***

Ibon Lizundia
ABADIÑO



**Sinadura bilketa amaituta, zer duzue esku artean?**
Alde batetik, maiatzaren 7ra begirako galdera erabakitzeko prozesua hasiko dugu. Bide horretan, martxoaren 9an herri batzar batera deituko dugu, eta osagaietako bat galdera erabakitzea izango da. Beste hainbat konturi buruz ere jardungo dugu batzar horretan.

**Herri galdeketako talde sustatzailea astero batzen da?**
Eguenero, 19:00etan,Traña-Matienako Trañaetxoste kalean dugun lokalean batzen gara. Gura duten denentzat atea irekita dugu. Galdeketa antolatzea denon arteko elkarlana izan dadila gura dugu.



***"Herritar talde bat batu gara, eta ilusioz eta gogotsu lanean gabiltza "***

Ibaia Maortua
ZALDIBAR

**Zaldibarren oraintsu sortu duzue taldea.**
Bai, herritar talde bat batu ginen, eta herri galdeketa egiteko lanean hastea erabaki genuen. Ilusioz eta gogotsu lanean gabiltza.

**Herritarren aurreko aurkezpenik egingo duzue?**
Otsailaren 24an, datorren barikuan herri aurkezpena egingo dugu Lehendakari Agirre plazan. 18:30ean hasiko da. Herriko askotariko elkarteak gonbidatu ditugu, eta baita udalean ordezkaritza duten alderdi politikoak ere. Ekitaldi anitza izan dadila gura dugu. Eta, jakina, herritar denak ere gonbidatzen ditugu.




Batez besteko kontsumoa 3,7-7,3 (l/100Km eta $CO_2$- a isurtzea 98-171 (g/Km).

Clase A. Aukera handi baten erretratu robota.

Clase A erosi baino lehen, jendea zutaz ohartuko dela argi izan behar duzu.Gogokoa da eta. Gogokoa da kirol-diseinua. Gogokoa da barneko xehetasun guzti-guztiak. Gogokoa da ekipamendu bikaina. Gogokoa da nola mugitzen den bai hirian bai errepidean. Gogokoa da une oro Mercedes batean zaudela sentitzea.Eta ez da zuretzat soilik gogokoa izango. Zuretzat da DYNAMIC SELECT, larrialdietarako serbobalazta aktiboa eta LED High Performance argiak dauzkana.

- 4 urteko bermea*
- 3.000€-rainoko laguntza berezia**
- Fidelity Plus Zerbitzuaren Akordioa 4+1, hilean 30 €-ren truke***

*Mercedes-Benz-en Advance Zerbitzuaren Akordioaren baldintzak kontuan hartuta, bermea 48 hil igaro arte edota 80.000 Km egin arte. Ez da baliozkoa ez Renting kasuetan, ez MB Complete-n ezta AMG motor-motetan ere.
**Mercedes-Benz Financial Services España, E.F.C.,S.A.-k finantziatua. %21 BEZ eta matrikulazio-zerga barne.
***Mercedes-Benz-en Fidelity Plus Zerbitzuaren Akordioa 4+1 baldintzak kontuan harturik, bermea 48 hil igaro arte edota 80.000 km egin arte. Ez da baliozkoa ez Renting kasuetan, ez MB Complete-n, zta AMG motor-motetan ere. Baliozko eskaintza : 2017/03/31 baino arinago matrikulatutako stockeko ibilgailuak.

Mercedes-Benz
The best or nothing.

AGUINAGA
Bizkaiko Mercedes -Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es . www.aguinaga.es

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47

# Korrikako arropa aurkeztu dute desfile herrikoi eta alai bategaz

## Euskararen aldeko lasterketa hurreratzen dabil, eta AEK-k jada salgai ipini du materiala

**DURANGALDEA** M. Onaindia
Martxoaren 30ean Otxandion hasiko den 20. Korrikarako arropa prest dago. Plateruenean egin zuten desfilea joan zen eguenean, hainbat herritar modelo lanetan ibilita. Giro alai eta umoretsuan jardun zuten pasarelan hara eta hona, ume, gazte zein helduek.

Korrika hasteko hilabete eta erdi falta da soilik. Euskararen aldeko lasterketaren usaina hurreratzen dabil, eta AEK-k salgai ipini du materiala. Kamisetak, jertseak... Kolore eta estilo ugaritako arropak daude aukeran. *www.korrika.eus* webgunean eskuratu daitezke, eta euskaltegietan ere bai.

### Otxandion, prestaketetan

Korrika era berezian biziko dute Otxandion, bertan emango baititu lehen pausoak. Horregatik, herrian prestaketa lanean dabiltza, eta hiru lan-talde sortu dituzte. Talde batek hasiera egunerako egitaraua osatuko du; beste talde bat eskolan eratu dute, goizean zerbait egiteko asmoz; aparte, herritar batzuk Otxandio berreuskalduntzeko helburuaz hausnartzen hasi dira, eta martxoan mintzodromo bat garatuko dute.

> Herritar batzuk Otxandio berreuskalduntzeko helburuaz hausnartzen hasi dira

Otxandioko kasua kenduta, Durangaldetik apirilaren 7an pasatuko da Korrika; Zornotzan 17:00 inguruan sartuko da, eta 22:00etan Mallabitik irtengo da. Korrikak beste hainbat ekitaldi ere ekartzen ditu beragaz; esaterako, afari herrikoia egingo da Durangoko Plateruenean.


Hainbat euskaltzalek parte hartu zuten desfilean.


Ume zein heldu, giro alaian ibili ziren Platerueneko pasarelan.

# LOMCE legearen aurka agertu dira Ikasle Abertzaleak

## Hilaren 23an manifestazioa egingo dute, 11:30ean, Andra Maritik irtenda

**DURANGALDEA** M.O.
Ikasle Abertzaleak erakundeak manifestaziora deitu du otsailaren 23rako, *LOMCEri ez, gure hezkuntza sistema propioa eraiki dezagun* lemapean. Durangoko Andra Mari plazatik irtengo da mobilizazioa, 11:30ean. Deialdi hori zabaltzeko asmoz, elkarretaratzeak eta talde argazkiak egin zituzten atzo Durangoko Fray Juan Zumarraga institutuan eta Ibaizabalen, eta Iurretako Juan Orobiogoitian baita ere.

> Deialdi hori zabaltzeko asmoz, elkarretaratzeak eta talde argazkiak egin zituzten atzo

LOMCEren aurkako dinamika berri hori Kataluniako Sepc eta Galiziako Erger ikasle mugimenduekin batera garatzen dabil Ikasle Abertzaleak; katalanak hilaren 9an atera ziren protestara, eta galiziarrak, atzo.

Horregatik, atzoko ekintza galiziarrei elkartasuna erakusteko erabili zuen IAk, eta 9an ere katalanen aldeko informazioa zabaldu zuen.



Hilaren 23rako deialdia egin zuten ikasleek.

# EAJk nekazaritza guneak "bertan behera utzita" daudela salatu du

**ELORRIO** M.Z.
Gobernu taldeak nekazaritza guneak "bertan behera utzita" dituela salatu du, prentsa ohar bidez, Elorrioko EAJk. "Elorrioko auzoen egoera, hobetu beharrean, kaskartu egin da, eta, hori gutxi balitz, gune horietara bideratutako politika publikoak murriztu egin dituzte", adierazi du Joseba Mujika bozeramaile jeltzaleak.

Oposizioko taldeak azaldu duenez, 2016an gobernu taldea ez zen auzoetako ordezkariekin batu, eta nekazaritza guneei dagozkien partidak murriztu zituzten.

Horrez gain, gobernu taldeak herritarrei zerbitzua ematen dien jardueretan ere, auzo taxian esaterako, murrizketak planteatzen dituela salatu du oposizioko taldeak. Mujika zinegotziaren hitzetan, "bidaia kopuruak mugatuz eta erabiltzaileen kategoria ezberdinak ezarriz, euro apur batzuk aurreztea da gobernu taldearen helburua".

# Datozen asteetan erabakiko dute zer egin 150.000 euroekin

**BERRIZ** M.Z.
2017ko aurrekontu parte-hartzaileetara bideratutako 150.000 euroekin zer egin erabakiko dute herritarrek datozen asteetan.

Gobernu taldeak bi zatitan banatu du diru partida. Alde batetik, 100.000 euro Berrizko herrigunera bideratuko da, eta beste 50.000 euroak, berriz, landa gunera. Diru horiekin zer egin erabakitzeko, lau batzar ireki antolatu dituzte, eta bertan, herritar guztiek parte hartu ahal izango dutela adierazi dute.

Lehenengo foroa otsailaren 20an, astelehena, izango da, 19:30ean, Berrizko Kultur Etxean. Bertan, herrigunera bideratutako 100.000 euroekin zer egin daitekeen pentsatuko dute. Hurrengo egunean, otsailaren 21ean, 19:30ean, landa gunean 50.000 euroekin zer egin dezaketen eztabaidatuko dute.

Beste bi batzarrak martxoaren 13an eta 14an egingo dituztela jakinarazi dute udaletik.

# Bakarrik bizi diren nagusiek laguntza edukiko dute etxeko obretarako

Bainuontzia aldatzea edo instalazio elektrikoa berriztea erraztuko du udalak



Udal arduradun eta teknikariek azaldu dute 1.840 pertsona direla 80 urtetik gorakoak, eta %22 bakarrik bizi direla.

**DURANGO** Markel Onaindia
Bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako durangarrek etxeko obretarako laguntza edukiko dute, etxeko instalazio elektrikoa berrizteko edota bainuontziaren ordez dutxa ipintzeko. Izan ere, Pilar Ríos alkateordeak azaldu du erorketarik gehienak sukaldean eta komunean izaten dituztela nagusiek. Ezbehar horiek saihestu gura ditu udalak, nagusiek euren autonomia mantentzen jarraitu ahal izateko.

Obra amaitzean, faktura udaletxean aurkeztu eta laguntza jasoko dute zaharrek. Gehienez, aurrekontuaren %50 jasoko dute. Baldintzak ere badituzte: 10 urtez Durangon erroldatuta egotea, etxean bertan bizitzea, urteko errenta 21.000 eurotik ez pasatzea eta bankuko aurrezkia 30.000 eurotik ez pasatzea.

Argiñe Larreategi teknikariak gogoratu du Durangon 1.840 direla 80 urtetik gorako pertsonak, eta horien %22 inguru bizi direla bakarrik.

> Erorketak saihestu gura ditu udalak, nagusiek euren autonomia mantentzen jarraitzeko

# Kaltegarri ez diren gai kimikoak, herria garbitzeko

Sentsibilitate zentraleko gaixotasunak dituzten herritarren aldeko adierazpena landu du udalak

**DURANGO** M. O.
Osasunerako kaltegarriak ez diren garbiketa produktuak erabiltzeko konpromisoa hartu du udalak. Sentsibilitate kimiko anizkoitza, elektrohipersentikortasuna, neke kronikoa eta fibromialgia duten herritarren aldeko adierazpen batean egin du, hain zuzen. Herriaren Eskubideak adierazi du bere iniziatibaz lortu dela.

Udalak azaldu duenez, sentsibilitate zentraleko gaixotasun horiek zerikusia dute gaur egungo bizi ereduagaz. Izan ere, produktu kimikoek eta uhin elektromagnetikoek pertsonengan eragina dutela ondorioztatu dute azterketa ugarik. Horregatik, konpromiso batzuk hartu ditu, "herritar guztien osasuna bermatu dadin". Garbiketarako neurriez gainera, etxeak euren gaixotasunen arabera egokitzeko diru-laguntza ere eskainiko die sentsibilitate zentraleko gaitzak dituzten pertsona horiei.



Garbiketako gai kimikoek pertsonengan eragina dutela uste dute.

## Ianire Estebanez psikologoa gonbidatu du Zabalarra eskolak

**DURANGO** M. O.
Ianire Estebanez psikologoak berbaldia eskainiko du datorren eguaztenean, hilaren 22an, Zabalarra ikastetxeko eskola komunitateak gonbidatuta. 17:30ean hasiko da berbaldia, Fray Juan Zumarraga institutuan. "Hitzaldiaren helburua sare sozialetan dauden arriskuei buruz informatzea eta sentsibilizatzea da, batez ere gazteen harreman sexual eta afektiboetan duten eraginagatik", azaldu dute antolatzaileek.

Nerabe eta gazteen arteko biolentziaren prebentzioan aditua da Estebanez, eta berbaldia, batez ere, irakasle eta gurasoei begira eskainiko du.

> "Hitzaldiaren helburua sare sozialetan dauden arriskuei buruz informatzea eta sentsibilizatzea da"

# Rementeriak herritarren galderei erantzun die

Aldundiak Durangon ipinitako bulegoak hile bitan 7.350 lagun jaso dituela dio ahaldunak




Rementeria, eguenean, Landako Elkartegian.

**DURANGO** J. Guenetxea
Unai Rementeria ahaldun nagusia Durangon izan zen aurreko eguen arratsaldean, Aldundiaren kudeaketaren berri ematen. Batzar horretara Durangaldeko 70 herritar gonbidatuta egon zirela azaldu zuen Aldundiak, prentsa ohar bidez. Ekimenean parte hartu zuten herritarrek proposamenak egiteko tartea izan zuten, eta horiei erantzun zien Rementeriak.

Aldundiak Durangon jarri du herritarrei arreta integrala emateko lehenengo bulegoa, eta Unai Rementeriak horren garrantzia azpimarratu zuen bere hitzaldian. Bulegoak bi hilabete inguru daramatza lanean, eta orain arte 7.350 laguni eman diela arreta jakinarazi dute.

Bestalde, "bidesarien arazoari konponbidea" eman diotela uste du ahaldunak. "Tarifa lauak 7.205 bizkaitarri ekarri die onura, eta horietako asko inguru honetakoak dira. Gutxi gorabehera, lau onuradunetik bat, %26, Durangaldekoak dira".

## Udaltzainek zebra-bideak zaintzea eskatu du herritar batek

**DURANGO** M.O.
Azkenaldian Durangoko zebra-bideetan gertatutako istripuek kezka sortu dute hainbat herritarrengan. Udalak dio istripu tasa bajatu egin dela, baina istripuen inguruko eztabaida agerikoa da. Juan Antonio Duñabeitia herritarrak, esaterako, udaltzainek zebra-bideak zaintzeko eskaera egin du udaletxean. Batez ere, Landako inguruan ikusten du zaintza horretarako beharrizana, hedabide honi kontatu dionez.

Duela hiru hile egin zuen eskaera udaletxean, baina oraindik ez diote erantzun. Horregatik, berriro ere erregistratu du eskaera.

> Udalak dio istripu tasa bajatu egin dela, baina istripuen inguruko eztabaida agerikoa da

## Igerilekuko tarifak inguruko altuenak direlako, EH Bildu kritiko

**ABADIÑO** I.E.
Inguruko herrietakoekin alderatuz, Abadiñoko igerilekuko zerbitzuen tarifak garestienak direla kritikatu du EH Bilduk, prentsa ohar baten bidez, asteon. Egoera horren erantzukizuna prezioa ordenantza fiskal bidez ezarri duen udal gobernuarena dela nabarmendu du EH Bilduk. "Joan zen hilabetean izan genuen aukera tarifak berrikusi eta egokitzeko, baina igerilekua kudeatzen duen enpresak egindako proposamena irten zen aurrera". Erabaki horren ondorioz, "kaltetuak instalazioak erabiltzen dituzten herritarrak" direla azpimarratu dute.

Urteroko sarrera eta gastuen balantzea aztertu eta tarifak egokiak diren ala ez erabakitzeko beharra dagoela dio EH Bilduk, baina gobernu taldeak ez daukala horretarako borondaterik. "Beste herri batzuetan bestelako tarifak egotea posible bada, gure herrian zergatik ez?", galdetzen du koalizioak.


Aho batez hartu zuten erabakia azken udalbatzarrean.

# Udalak berriztagarriak diren iturrietatik jasoko du argindarra

## Aldaketa hori emateko prozesua abiatzea onartu dute azken udalbatzarrean

**OTXANDIO** Joseba Derteano

Otxandioko Udalak energia berriztagarrien aldeko pausu bat eman zuen azken udalbatzarrean. EH Bilduk (Gobernu Taldea) eta EAJk energia mota horiek sustatzen dituen *Udalx100berriztagarri* izeneko plataformari atxikimendua erakustea onartu zuten, aho batez. Horregaz batera beste erabaki bat hartu zuten: udalak kontratatutako argindar guztia iturri berriztagarrietatik datorrela bermatuko duen prozesuari hasiera ematea.

"Otxandion argindar gehien kontsumitzen duenetakoa da udala. Beraz, energia berriztagarriak bultzatzeko eman dezakegun pausorik eraginkorrena onartutako bide hori hastea dela uste dugu", adierazi zuen Urtzi Armendariz alkateak. Bide horregaz "bat datozela" adierazi zuen udalbatzarrean EAJko Beñat Gorospe zinegotziak ere.

Horrela, orain egoera aztertzeari eta baldintza orriak idazteari ekingo diote, ondoren batzordeetan aztertu eta udalbatzarrera eramateko.

Atxikimendua jasotako *Udalx100berriztagarri* plataformaren helburua energia berriztagarrien kontratazio publikoa sustatzea da, besteak beste. Askotariko sindikatu (ELA, LAB, CCOO; EHNE…), erakunde eta mugimenduren atxikimendua jaso du.

# Birziklapenerako gune berria jarri dute Mainerrotan

## Besteak beste, pilak eta bonbilak eraman daitezke

**OTXANDIO** J.D.

Bereziak diren hainbat material mota birziklatzeko gune berri bat jarri du Herri-Ola egitasmoko Zero Zabor taldeak Otxandiko Mainerrotan, buzoiaren ondoan. Hain zuzen, pilak, bateriak, CD-DVDak, kontsumo baxuko bonbilak, tinta-kartutxoak, boligrafoak eta plastikozko tapoiak ermana daitezke Garbigune txikira.

Orain arte inguruko herrietako Garbiguneetera joan beharra zegoen material mota hori birziklatzeko. Gune berria birziklapena sustatzeko "pauso berri bat" dela adierazi dute Zero Zaborreko kideek.

### 49.900 kilo zabor gutxiago

Bestalde, beste datu bat ere jakitera eman dute. Gaur egun 170 familiak —otxandiarren herenak gutxi gorabehera— auzokonpostean parte hartzen dute edo nork bere konposta egiten du etxean. Datu horregaz eta Aldundiak emandakoekin (pertsonako hondakin organiko kopurua egunean…) kalkulatu dutenez, 2017an 49.900 kilo zabor gutxiago bidaliko dute zabortegira. 2016ko lehen esperientzian 30 familia hasi ziren auzokonposta egiten, eta 8.800 kilo zabor aurreztu zituzten. Aurten iaz baino 41.1000 kilo gehiago aurreztea itxaroten dute.


Mainerrotan buzoiaren ondoan dago Garbigune txiki berria.


Enplegu bulegoa iaz ireki zuten San Migel kaleko 3. zenbakian.

# Enplegu bila dabiltzanek bilaketa propioa egin dezakete, internet bidez

**ZORNOTZA** J.Derteano

Enplegu Bulegoko erabiltzaileei begira, internet bidezko sistema berri bat indarrean jarri dute udalak eta ekonomia sustapen sailak. Sistema berri horregaz, enplegu bila dabiltzanek beren datuak kudeatzeko eta bilaketa propioak egiteko aukera dute, internet bidez, Enplegu Bulegora joan beharrik gabe. Horrela, besteak beste, enplegu eskaintzetan eman ahal izango dute izena, edozein tokitatik *curriculum vitae*-a sartuz zein aldatuz. Sistema horretako sarbidea Zornotzako Udaleko webgunean aurkitu daiteke. Zuzenean sartzeko helbidea honako hau da: *www.tganet.net*.

Sistema hori bateragarria izango da Zornotzako Enplegu Bulegoak 08:30etik 14:30era eskaintzen duen bitartekaritza zerbitzuagaz. Datuak sartzerakoan izan daitekeen edozein zalantza argitu ahal izango du erabiltzaileak, bulegoan bertan zein honako helbide honetan: cv@amorebieta.eus.









# Eitzagako auzotarrak “babesgabe” sentitzen dira trenbidea desbideratzeko lanen aurrean

Ermuako saihesbideko bi urteko obrak amaituta, trenbidekoak jasan behar dituzte beste hiru urtez

**ZADIBAR** Itsaso Esteban

Hiru urtez, Ermuako saihesbidea eraikitzeko burutu dituzten lanek zuzenean eragin diote trenbidearen eta autobidearen artean dagoen Eitzaga auzoari. Saihesbideko lanen parterik handiena amaituta, orain, Euskal Trenbide Sareak hasi dituen lanek dauzkate Eitzagako auzokideak kezkatuta. Trenbidea desbideratzeko lan horiek 36 hilabeteko iraupena izango dute, eta, besteak beste, kilometro eta erdiko tunel bat eraikiko dute, Ermuatik Eitzagaraino. “Umeak ditugu. Tunela egiteko eztandak hasten direnean, zer egin behar dugu, beste nonbaitera bizitzera joan?”, diote kezkatuta auzotarrek. Tunela egiten hasteko, eremua prestatzen dabiltza ETSko langileak, orain.

Azken urteetan saihesbideko obraren eraginez jasan behar izan dutenaren ostean, beste hiru urtez horrelako obra baten albo kalteak jasatea ezinezkoa dutela adierazi diote Eitzagako auzotarrek ETSri. Egunean 80 kamioi baino gehiago ibiliko dira tunela egiteko hondeatutako lurra garraiatzen, eta horri obran diharduten bestelako langileen joan-etorriak ere gehitu behar zaizkio. “Gure auzotik irten beharrean, kamioiak Ermuako nazionaletik ere irten daitezke”, diote auzokideek, baina “kamioi bakarra ere ez dute Ermuatik bideratu gura. Nahiago dute Ermuako lurrak ez direnetatik bideratu, gure auzotik, jende gutxiago bizi denez gutxiago kexatuko den lekutik”.



Kilometro eta erdiko tunela zulatzen hasi orduko, eremua prestatzen dihardu ETSk.

> ”Obrek guri eragiten digute, baina inork ez gaitu kontuan hartzen ezta informatzen ere”

Babesgabe sentitzen direla salatu dute auzotarrek. “Obrek guri eragiten digute, baina inork ez gaitu kontuan hartzen, ezta informatzen ere. Ermuako Udalak, Aldundiak eta ETSk ez dute kontuan hartu, ez Zaldibarko Udala, ezta Eitzagako biztanleria ere”, gaineratu dute.

## Urtarrileko batzarra

Urtarril amaieran, Arantza Baigorri Zaldibarko alkateagaz eta ETSren ordezkariekin batzarra burutu zuten Eitzagako dozena bat auzotarrek. Auzotarrek eta Zaldibarko Udalak Eitzagan ahalik eta kalterik gutxien eragiteko konpromisoa eskatu zioten batzarrean ETSri. Auzoa zeharkatzea ekiditeko, kamioiak hasierako proiektuak jasotzen zuen lekutik bideratzea eskatzen dute bizilagunek.

“Beraientzat onurarik ez dakarten azpiegitura handien eraikuntzaren albo kalteak jasan behar dituzte behin eta berriz Eitzagako biztanleek”, dio Baigorri Zaldibarko alkateak. “Udal moduan ahal duguna egiten dugu; guk ez daukagu indarrik hau gelditzeko, egin dezakeguna da auzotarren eskariari bultzada ematen saiatzea, eta horretan gabiltza”, dio Baigorrik. Auzotarrak bezala, bestalde, informazio ezagatik kexu da Zaldibarko Udala ere.



# Gazte lokal bat zabalduko dute liburutegi zaharrean

## Herriko gaztetxoek bilgune bat edukiko dute, udalak euren iritzia prozesu baten bidez ezagutu ostean

**MAÑARIA** Markel Onaindia

Mañariko gaztetxoek bilgune bat edukiko dute aurrerantzean, udalak gazte lokal bat zabalduko baitu liburutegi zaharrean. 2017rako udal aurrekontua osatzeko, gazteekin partaidetza prozesu berezia landu du instituzioak, eta bilgune baten beharra izan da ondorio nagusia. Horrez gainera, kanpoko gazteekin elkartruke programa bat garatzea ere gura dute. Eguaztenean udaletxean egindako osoko bilkuran 2017ko aurrekontua onartu zuten aho batez EH Bilduk eta EAJk.

Gazte lokala zabaltzeko, lehenik eta behin araudia eta funtzionatzeko modua adostu beharko dituzte, Endika Jaio alkatearen arabera. “Adin txikikoak direnez, gurasoekin ere landu beharko dugu”, adierazi du EH Bilduko alkateak. Gero, lokala dinamizatuko duen enpresa edo elkarte bat kontratatuko dute. Liburutegi zaharrean botikinerako egokitutako lekuan zabalduko dute gazteentzako gunea, lekua sobera dagoelako. Momentuz, 5.000 euro bideratuta ekingo diote proiektuari.

Aurten 7 bat gaztek parte hartu dute partaidetza prozesuan.

> Horrez gainera, kanpoko gazteekin elkatruke programa bat garatzea ere gura dute

Iaz 10 bat umegaz burutu zuten, eta plazako kioskoa jolasgune bihurtzea izan zen erabakia; obrak amaituta, laster errealitate bihurtuko dena hain zuzen.

**Inbertsio ahalmena, gora**

Gazteei begirakoak ez dira, hala ere, herritarren iritziaren arabera onartutako ideia bakarrak. Adibidez, auzoetako argiteria hobetzea eskatu dute zenbait herritarrek, eta udalak 20.000 euro inbertituko ditu horretan. Bideak eta parkeak konpontzeko ere 70.000 euro erabiliko ditu, gainera. EAJren ekarpenez, neguan auzobideak garbitzeko 3.000 euro ipiniko dituzte.

826.000 euroko diru sarrerak eta gastu ahalmena izango ditu udalak aurten, iaz baino %15,64 handiagoa. Jaioren esanetan, arrazoi bik eragin dute hori; iazko exekuzio positiboak eta zorra %35etik behera bajatzea lortzeak. “2009an 1,17 milioi euroko zorra geneukan, eta gaur egun 265.000 eurokoa da”, baloratu du alkateak.



Eguaztenean egin zuten 2017ko aurrekontua onartzeko osoko bilkura.

PARTIDA AIPAGARRIAK
- **70.000** auzobideak konpontzeko.
- **35.000** hirigintza planerako.
- **20.000** argiteria hobetzeko.
- **8.000** aisialdia antolatzeko guraso taldearentzat.
- **5.000** garagardo azokarako.
- **5.000** gazte programarako.
- **3.500** Kultur Etxeari buruzko partaidetza prozesurako.
- **2.000** etxe hutsen inbentarioa.

---

## Herri ortuetako funtzionamendua berbagai izango dute, 21ean

**ATXONDO** M.Z.

Herri ortuetako funtzionamenduaz hitz egiteko batzarrera deitu dute hilaren 21erako. Udaletik jakinarazi dutenez, batzarra datorren martitzen arratsaldean izango da, 19:00etan.

Bertan, herri ortuak jarri gura dituzten herritarrei hauen inguruko informazioa eman, eta herri ortuetako funtzionamendua nolakoa den azalduko diete.

Horrez gain, herri ortuetan parte hartu gura duenak oraindik izena emateko aukera duela adierazi dute gobernu taldeko kideek.

**Diru-laguntzak**

Bestalde, herriko taldeek diru-laguntzak eskatzeko epea oraindik zabalik dutela baieztatu dute gobernu taldeko kideek.

Diru-laguntzak jaso gura dituzten taldeek, datorren eguenera arte, otsailak 23, izango dute aukera diru-laguntzen eskaerak udaletxean egiteko.

## Pisu neurtuko asto probak ikusteko aukera dago asteburuan

**MALLABIA** J.Derteano

Mallabiko Udalak hiru asto proba jaialdi antolatu ditu gaurtik domekara Txondor Herri Kirol Taldearen laguntzagaz. Tartean Mallabiko talde bi izango dira: Irazola eta Aldape. Gaurko lehen jaialdia 21:00etan hasiko da Mendata, Gamiz-Fika, Bermeo eta Erandiotik joandako asto probalariekin. Zapatuan, herriko Irazolagaz batera, Gamiz-Fika, Peruri eta Iurretako taldeek jardungo dute harriari tiraka. Azkenik, domekan, Aldapez gainera, Etxebarria eta Gamiz-Fikako talde banak parte hartuko dute. Irabazleak 410 euro irabaziko ditu, eta bigarrenak 350 euro. Aurreneko hamar sailkatuentzat sariak egongo dira.

> Mallabiko bi talde daude tartean: Irazola eta Aldape. Iurretako batek ere parte hartuko du



San Migel eliza osteko etxean dago Umerri hezkuntza proiektua.

# Umerri proiektuaren alde, afari beganoan batuko dira Sapuetxen

## Munduko janari anitzak dastatzeko aukera eskainiko dute hilaren 24an

**GARAI** Markel Onaindia

Munduko janari anitzak dastatu eta proiektu herritar bati lagundu gura dionak hilaren 24an edukiko du aukera Durangoko Sapuetxen. Izan ere, Garain egoitza duen Umerri hezkuntza egitasmoaren aldeko afari beganoa (animaliengandik ez datorrena) egingo dute.

Sapuetxeko bigarren solairuan egingo dute afaria. 30 lagunentzako bi txandatan antolatuko dute, 20:30ean eta 22:00etan. Txartelak salgai daude 10 eurotan, Hitz liburu-dendan lehen txandarako, eta Arkarazo taberman bigarrenerako. Jatorri askotako jakiak dastatuko dituzte: Libanoko baba ganousha, Indiako espinaka curya, AEBetako txanpinoi hanburgesa...

> 30 lagunentzako bi txandatan antolatuko dute, 20:30ean eta 22:00etan

2011ko urrian zabaldu zuten Umerri Garaiko San Migel eliza osteko etxean, eta 16 bat ume dabiltza bertan. Heziketa eredu berria dute; haurrak euren erritmoaren arabera eta ingurune naturalean heztea da sustatzaileen helburua.

# Gaztelekua sortzeko eskaera egin dute 200 sinaduraren babesagaz

## 12-13 urteko gazteen talde batek abiatu du Gaztelekuaren aldeko sinadura bilketa



Sinadurak batzen ibili diren gazteak.

**IURRETA** Jone Guenetxea
Iurretako gazte talde batek gaztelekua sortzeko eskaera egin dio Iurretako Udalari. Eskaera hori idatziz aurkeztu zuten udaletxean, astelehenean. Hamar bat gaztek abian jarritako ekimenagaz bat egin dute 200 herritarrek, dokumentu hori sinatuta.

12-13 urte arteko gazte hauek azaldu dutenez, "negu gorrian gaude, eta ez dugu inon egoteko lekurik". Izan ere, Ibarretxe kultur etxeko ludotekan 10 urtera arteko gazteek parte hartu dezakete. Adin horretatik gorakoek kalea dute egonleku aisialdiaz gozatzeko. Horregatik, aisialdirako espazio bat gura dute.

### Zaldibar, eredu

Ekimenaren bultzatzaileek DBH ikasten dute Orobiogoitia ikastetxean, eta hainbat zaldibartar dituzte gelakide. Horrela, Zaldibarko gaztelekua ezagutzeko aukera izan dute. Espazio hori gustuko dute, eta antzeko esperientzia bat Iurretan martxan jartzea gurako lukete. Gazte hauen gurasoek diotenez, ludotekan egoteko nagusiak dira, baina herrian aisialdirako espazio falta dute. "Neguko egunetarako, aterpe bat ere ez daukate herrian", azaldu du guraso batek. Gaineratu duenez, gazteengandik irten da sinadurak batzeko asmoa. "Asko pozten gara beraiek direlako mugitzen ari direnak, gu ondoan gauden arren. Udalagaz berba egiteko ere prest daude, eta guk lagundu egingo diegu", azpimarratu du.

> "Negu gorrian gaude eta ez dugu inon egoteko lekurik", diote sinadurak batzen ari diren gazteek

# Orozketarako bideagaz lotuko dute Santa Apolonia auzoa

**IURRETA** A.B.
Santa Apolonia auzoa Orozketarako bideagaz lotzeko lanak martxoaren erdialdean amaituko dituzte. Udal ordezkariek azaldu dutenez, 161.469 euroko aurrekontua duten lanon barruan, Iurreta eta Durango lotzen dituen Arandiarako bidegorria ere luzatuko dute —400 metro—, eta argiteria hobetu. Iñaki Totorikaguena alkatearen ustez, "Santa Apolonia auzokoei onura ekarriko dieten lanok gainontzeko iurretarrengan ere eragingo dute".

# Txitxiburduntzi eguna ospatuko dute domekan

**IZURTZA** J.D.
Urteroko ohiturari eutsiz txitxiburduntzi eguna ospatuko dute domeka honetan Izurtzan. Udaletxe pareko plazan jarri dute hitzordua, 12:00etatik aurrera. Txitxiburduntzia egin ahal izateko sua udalak egingo du. Hortik aurrerakoa norberak jarri beharko du. Nork bere janaria eta edariak eraman beharko ditu bertan prestatzeko.

## SEI HANKAKO MAHAIA

**FRAN GARATE**
PP



### Enplegua, enplegua eta enplegua

Oraintsu entzundako baieztapen batzuk defendatu eta durangarrekin partekatuko ditut. Enplegua Ongizate-estatuaren euskarria da. Altxorra da lortzen duenarentzat, eta urrezko meatzea kolektibitatearentzat. Gizarte-segurantza langileen eta enpresarien kuotekin berdintzen da; pentsioak kotizazioekin ordaintzen dira eta zerbitzu publikoak langileek eta kontsumitzaileek ordaindutako zergekin.

Espainian 18 milioi eta erdi pertsona dugu dagoeneko lanean, atzean uzten ari garen krisi luze honetan enpleguak izan duen unerik txarrenean baino milioi bat eta seiehun mila lagun gehiago. Arnasa hartzeko bidea ematen digu honek, konfiantza eta egonkortasuna, baina hori ez da nahikoa.

Iaz %3,2 hazi ginen. Europako ekonomia handienen artean izandako erritmorik altuena da, eta Euroguneko batez bestekoaren bikoitza, AEB eta Alemaniaren gainetik. Aurten ere enpleguaren hazkundea ehunka milaka pertsonetan zenbatuko da. Betebeharrak betetzen gabiltzala esan gura du horrek, gure helburuak betegarriak direla eta gure esku daudela.

Ez da erraza izango. Ez diot kudeaketagatik, kudeaketa hori garatu beharreko inguruabarrengatik baizik. Batzuei iruditukozaie orain lau urtekoa baino zeregin errazagoa dela, Espainia bideratuta dagoelako. Esfortzu gutxiago eskatu beharko luke denak, egia da, baina gure indarra gutxitu egin da, jada ez daukagu gehiengo osoa, ez dago dena gure esku, eta besteen borondatea ere batu behar dugu. Baina saiatuko gara lortzen. Durangok, Euskadik eta Espainiak merezi dute.

**Erredakzioan itzulia*

## DURANGALDEA ASTEON

### Berton Bertokoak berbaldia prestatu du

**ATXONDO >** Berton Bertokoa dinamikak bultzatuta, otsailaren 23an haurren elikaduraren inguruan arituko dira Atxondoko eskolan, Sergio Gallegoren eskutik. Horren ostean, sabelak bete eta pertsonak elikatzearen artean dauden desberdintasunak ikusiko dituzte *El plat o la vida* dokumentalaren bitartez.

### Urteko batzar orokorra egingo dute jubilatuek

**IURRETA >** Datorren martitzenean, hilak 21, urteko batzar orokorra egingo du jubilatuen elkarteak, 18:00etan hasita, euren egoitzan. Kideei bertaratzeko deia egin diete.

Gainera, hilaren 27an Torrelavegara (Kantabria, Espainia) irteera burutuko dute, eta martxoaren 3an sagardotegira.

### Tabakoa uzten ikasteko deialdia egin dute

**DURANGALDEA >** Durangaldeko Amankomunazgoaren Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak erretzeari uzteko bi ikastaro antolatu ditu. Datorren apirilaren 6an hasiko dira, eta eguenetan izango dira, goiz eta arratsaldeko ordutegian. Interesdunek 94 620 05 20 telefonora deitu ahal dute, martxoaren 6a baino lehen.

## IRITZIA

**astekaria@anboto.org**
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.



Berbaz

**Ane Amantegi** (Durango, 1994), **Aitor Del Hierro** (Zaldibar, 1997) **eta Maialen Arteaga** (Zornotza, 1998) | Ernai antolakundea

# "Gazte mugimenduaren parte aktibo izan gura dugu, eta alternatiba zehatzak planteatu"

Apirilean borobilduko du Ernaik II. Kongresua. Urrian abiatu zuten prozesuan Durangaldeko 100 gazte ari dira parte hartzen

> BERBAZ Aitziber Basauri

**'Inurritegia, eguneroko borrokan eraikia' lelopean II. Kongresua abiatu du Ernai antolakundeak. Apirilaren hasieran ekitaldi nazional bategaz amaituko dute urrian abiatu zuten Inurritegia prozesua. Urritik hona batutako ekarpenekin osatutako 'Zirtaka' ponentzia dute orain eztabaidagai. Durangaldeko 100 bat gazte ari dira parte hartzen prozesu horretan.**



**Urrian hasi zenuten prozesua, eta apirilean borobilduko duzue. Zeintzuk dira kongresuaren helburuak?**

**Maialen Arteaga:** Etapa desberdinetan dago banatuta kongresua, eta, une honetan, proposatutako gazte estrategia eztabaidatzeko prozesua abiatu dugu: abertzaletasunetik haratago doan independentzia nahi batetik abiatuta, zergatik gura dugun independentzia eztabaidatuko dugu. Estatu sozialista bat, estatu feminista bat, hezkuntza propio bat... ekarriko digu horrek, eta horretaz guztiaz oharkabetzera eramango gaituen independentzia nahi bat sortzea da kongresuaren helburua.

**'Zirtaka' txostenean jaso dituzue urritik hona batutako ekarpenak. Orain eztabaidarako tartea zabaldu duzue?**

**Ane Amantegi:** Oinarrizko ponentzia idazteko ekarpenak jaso dira urritik hona. Orain abiatu den eztabaida prozesuan, txosten horri ekarpen berriak egiteko aukera zabaldu da, ponentzia egokitzeko edo aldatzeko. Horretarako, Euskal Herriko gazteen ekarpenak jasoko dira. Ahalik eta ekarpen gehien jasoko dira eta gazte denok batera osatuko dugu gazte estrategia.

**Aitor Del Hierro:** Eztabaidagai dugun *Zirtaka* txosten horren baitan Euskadi Feministaren ekarpenak eta Ikasle Abertzaleekin adostutakoak jasotzeko —hezkuntza arloan azken horiek— zenbait saio ere egin dira. Gazteengan hautabide independentista sustatzea eta independentziarako aldarria gure egunerokotasunean txertatzea da tesi nagusia.

**Herriz herri eta auzoz auzo ari zarete lantzen 'Zirtaka'. Durangaldean ere bai?**

**M.A.:** Durangaldean 100 gazte inguru ari gara horretan lanean. Orain arte heldu ez garen gazteengana heltzea ere bada helburua, eta kongresu honegaz ahalik eta gazterik gehienen iritzi eta ekarpenak jaso gura dira. Zentzu horretan, parte hartzea nahiko aberasgarria izan da.

**Zeintzuk dira ponentziaren ardatz nagusiak?**

**A. D.H.:** Gazte estrategia berregokitzea izan da Ernaik izan duen erronka nagusia, Ezker Abertzaleak *Abian* hausnarketaren ondotik abiatutako proiektu independentista oinarri hartuta. Erronka horren barruan gazteen problematikak landuko dira, gazteok bizi ditugun zapalkuntza mota desberdinak. Gazte mugimenduen parte aktibo izan gura dugu, eta alternatiba zehatzak planteatu sistemaren parametroetatik kanpo.

**A.A.:** Etxebizitza, lana eta hezkuntza dira lan ildo nagusiak. Hori guztia ikuspuntu feminista batetik. Gazteak sektore berezitua gara, eta gazte izate soilagatik askotariko zapalkuntza motak pairatzen dituena. Horri aurre egin gura zaio.

> *"Gazte estrategia berregokitzea izan da Ernaik izan duen erronka nagusia"*

> *"Kongresu honegaz ahalik eta gazte gehienen iritzi eta ekarpenak jaso gura ditugu"*

**M.A.:** Arlo guztietan burujabe izatea bultzatu gura dugu. Burujabe bizitzea da berez independentzia. Inoren menpe ez egotea eta zapaltzen gaituen sistemari aurre egitea gura dugu.

**Gazteen arazoak erdigunean jarri eta alternatiben bidez borrokatzearen aldeko apustua proposatu du Ernaik.**

**A.D.H.:** Bizitza vs kapitala. Oinarrizko eskema horretan sakondu gura dugu. Garrantzirik gehien kapitalak hartzen duen sistema hau bizitzagaz kontraesanean dagoela ikusiko dugu, eta horri aurre egiteko gazte mugimenduak alternatiba propioak sortuko ditu.

**Ernairen funtzionamendua ere izan duzue langai?**

**A.A.:** Ernai sortu zenetik gaur arte, prozesu feminista bat eman da eta horrek hainbat ondorio jarri ditu mahai gainean. Horien artean genero sistemak sortutako zapalkuntzei aurre egiteko neurriak planteatu dira. Herrietako militanteok zeintzuk premia ditugun ere definitu gura izan da, besteak beste.

**Antolakuntzak ere berezko garrantzia hartu du kongresu honetan. Zergatik?**

**A. A.:** Ernaiko taldeez aparte, beharrezkoa ikusi da proiektu honegaz ados dauden gazte guztiak batuko dituen oinarri sozial edo komunitate handi bat sortzea, antolakundea bera herrietan berregokitzeko. Hori da kongresuan antolakuntzari dagokionez planteatutako berrikuntza nagusia. Hartara, gazte guztiek izango dute ekarpenak egiteko espazio bat. Ernai herri eta auzo guztietako gazteei zabaldu gura zaie, nahiz eta egunerokotasun horretan ez duten parte hartzen. Kanpo proiekzioa eta indar erakustaldiak ere landu gura dira, eta horri begira ekimenak antolatuko dira, ikusgaitasuna emateko.

**Hutsunea ikusi duzue hor?**

**M.A.:** Baliteke ez jakin izana bere burua militante moduan ikusten ez duten edo antolakundean aritzeko denborarik izan ez duten gazte horiengana heltzen. Gazte horiek ez dute izan parte hartzeko modu zuzen bat, eta orain parte hartzea zabaltzea proposatu da, eurak ere badira-eta estrategiaren parte.

**Zornotzatik Igorrera, Gazte Akelarrea egingo duzue, apirilaren 13, 14 eta 15ean.**

**A.A.:** Herri guztietan murgildu dira gazteak prozesuan, eta hori amaitu ostean, *Zirtaka*n sortutako txinpartekin Gazte Akelarrea sortzeari ekingo diogu, su hori benetan martxan jarri gura dugu. Abiatutako prozesu honetatik indartuta irten gura du Ernaik.

Kultura

# The Van: “Dena eman eta oso ondo pasatu genuen finalean”

## The Van Durangaldeko boskoteak irabazi du Zornotzako Maketa lehiaketa

**MUSIKA** Itsaso Esteban

Berriz, Elorrio eta Durangoko 20 eta 22 urte arteko bost lagunek osaturiko boskotea da Zornotzako maketa lehiaketa irabazi duen The Van. Alex Garcia da talde horretako abeslari eta gitarrista, Martzel Vargas gitarra bakarlaria, Asier Alejo baxu-jotzailea, Ingartzi Etxeandia teklista eta Jangitz Larrañaga bateria-jotzailea.

Aurretik, Monkday izenagaz, bertsioak jotzen ibili izan dira boskoteko hainbat kide bi-hiru urtez, eta duela urtebete inguru hartu dute The Van izen berria. Ingartzi Etxeandia taldeko teklistak azaldu duenez, beraien kantak sortzen hasi zirenean aldatu zuten izena, bide berri baten hasieraren lekuko. Ironiaz deitu dute taldea, ingelesez, furgoneta. “Ez daukagu furgonetarik, eta trenean edo beste talde batzuen furgonetetan eraman behar izan ditugu instrumentuak kontzertuetara sarritan”, dio Etxeandiak, “the band with no van da gurea”.

Zornotzako maketa lehiaketako epaimahaiak aukeratutako taldeetariko bat izan zen The Van boskotea, eta bi kontzertu eskaini dituzte lehiaketa horren barruan; 40 minutuz aritu ziren finalaurrekoan, eta 20 minutuz barikuko finalean. “Dena eman genuen, eta, gainera, oso ondo pasatu genuen finalean”, kontatu du Etxeandiak. “Ez genuen uste irabaziko genuenik; oso pozik gaude, eta espero dugu honek lagundu egingo digula hemendik aurrera kontzertu gehiago lotzen”.

> Ingartzi Etxeandia: “Espero dugu sariak lagunduko digula aurrerantzean kontzertu gehiago lotzen”

Atxondon entseatzen dute—Kilauea taldekoekin partekatzen duten lokalean—, eta, hain zuzen ere, maketa lehiaketa honen lehenengo edizioko irabazlea izan zen Kilauea taldearen laguntzagaz grabatu zituzten Zornotzako lehiaketara aurkeztu zituzten hiru kantak. Sarean, *www.thevan1.bandcamp.com* webgunean daude *Dreamer*, *Shut Down* eta *Left Foot First* kantak entzungai.

60ko eta 70eko hamarkadetako musika dute gustuko The Van taldeko gazteek, eta Rolling Stones, The Doors eta Freddie Kingen bertsioak egiten dituzte, besteak beste. Etxeandiak azpimarratu du, baina, taldekide bakoitzak bere gogoko musikak dituela, eta eragin horien guztien ondorioa dela The Van. “Bakoitzak bere aportazio oso pertsonala egiten du, eta elkarrekin sortzen duguna blues eta rock & roll musika da”.

Taldekideetako bat denbora baterako atzerrira doan arren, udara begira konposatzen jarraituko du The Van boskoteak. “Kontzertuetan geuk sortutako kanta gehiago eskaini ahal izateko”, Etxeandiaren berbetan.

Joan zen zapatuan jokatu zuten Zornotzako maketa lehiaketako finala, Zornotzako Zelaieta zentroan, eta 1.500 euroko sari nagusia jaso zuen The Van-ez gain, beste bi talde ere saritu zituzten: *Suaren lurraldea* kantagatik Incrused taldeari eman zioten euskarazko abestirik onenaren saria, eta 71 talde madrildarrak irabazi zuen Zornotzako jaietan jotzeko aukera dakarren hirugarren saria.



Berriz, Elorrio eta Durangoko gazteek osatzen dute The Van. Sara Estebez





Aurretik, Monkday izenagaz, bertsioak jotzen zituzten batez ere. S.E.





60ko eta 70eko hamarkadetako musika dute gustoko The Van taldekoek. S.E.

# ‘Bodas de Sangre’ eskainiko du Estudillok, Durangon, bihar

## San Agustinen antzeztuko dute Federico García Lorcaren ‘Bodas de sangre’

**ANTZERKIA** Aimar Esteban

Antonio Malondak zuzenduta, A pie de obra Madrilgo antzerki taldeak obra klasiko hau Durangoko oholtzara eramango du. Emanaldia, bihar, 20:00etan izango da. Obran parte hartzen duten aktoreen artean, Mariano Estudillo durangarra dago. 19 urte zituela, Estudillo Madrilera joan zen aktore moduan ibilbide bat egitera, eta aktore profesional moduan dator. bueltan. “Sei urteren ondoren etxean antzeztea berezia izango da. Antzerkiko familia eta nire benetako familia ondoan izango ditut”, aitortu du aktore durangarrak.

*Bodas de Sangre* emakume baten maitasunagatik heriotzera arte borrokatzen diren bi lehiakideren kronika da. Besteak beste, familien arteko liskarrak, boterea eta sinesmena jorratzen dira obran zehar. “Lorcaren testurik ezagunenetakoa da, baina jende gutxik daki benetako istorio batean inspiratuta dagoela”, adierazi du. Antonio Malonda da laneko zuzendaria, eta Estudillok nabarmendu duenez, “testua ahalik eta fidelen jorratzea bilatu du. Antzerki taldekook egin duen lanean sinesten dugu”. Obrak antzerkia, dantza eta musika uztartzen ditu eta biraren azken emanaldia izango da Durangokoa.



Familien arteko liskarrak, boterea eta sinesmena jorratzen ditu, besteak beste, antzezlanak.

Antzerkian lan egitea asko atsegin du aktore durangarrak, baina “Jose Sacristanek zioen moduan, Espainian aktore izan gura izatea Finlandian toreatzailea izan gura izatea bezalakoa da. Hemen ez dago antzerki kulturarik”, dio bere lanbidearen zailtasunei buruz. Hala ere, “aktore izan gura duten gazteei aktore formazio prozesua inoiz ez uzteko” gomendatzen die.

> Obrak antzerkia, dantza eta musika uztartzen ditu, eta azken emanaldia izango da Durangokoa

Maila handiko aktore ezagunekin aritu da Estudillo bere ibilbidean. “Aktoreak gara beldur asko ditugun pertsonak garelako, eta beldur horiek tresna moduan erabili ditzakegula ikasi dut. Gizakiak gara denok, eta akatsak egiten ditugula ere ikasi dut”, dio aktoreak.

Besteak beste, *Vive cantando* telesailean, eta *La herida* eta *Un otoño sin Berlín* filmetan parte hartu du Estudillok.

# Kale dantzen lehiaketa hartuko du Elorrioko Arriolak, bihar

40 taldek parte hartuko dute bihar 16:30ean hasiko den Akadantz lehiaketan

**> DANTZA** Itsaso Esteban

Elorrioko Arriolan egingo dute, bihar, 2017ko Akadantz dantza urbanoen lehiaketa. Gehienak EAE eta Nafarroakoak, 40 talde lehiatuko dira Elorrion. Beste 40 talde arituko dira martxoaren 4an Aretxabaletan egingo duten Funtzdantz lehiaketan, eta saio horietako bakoitzetik talde bat sailkatuko da Bilboko Break On Stage lehiaketara. "Modalitate hauetan dabiltzan Euskal Herriko talde erreferenteek parte hartzen dute Bilborako txartela lortzeko lehiaketa hauetan", nabarmendu du Imanol Garaizabal Akadantz lehiketako antolatzaileak. Bamboo donostiarrak, Blue Star iruñarrak eta Hop Family bilbotarrak arituko dira, besteak beste, bihar, sailkapen horretarako borrokatzen.

Bi parte izango ditu Arriolako emanaldiak; 16:30ean 15 urte arteko dantzarien saioak hasiko dira, eta 19:30ean Break On Stage jaialdirako txartela lortzeko lehiatuko diren helduenak. Hiru kategoriatan lehiatuko dira; 15 urtetik beherakoak arituko dira, batetik; 16 urtetik gorakoak, bestetik; eta bikoteak, azkenik. Bi dantza estilotako askotariko modalitateak izango dira ikusgai Arriolan: batetik, house, hiphop, eta funkya kaleko dantzak, eta bestetik, modalitate esperimentaleko liriko, jazz, eta moderno dantzak.



Dantza modalitateotako Euskal Herriko talde erreferenteak arituko dira, aurten ere, Arriolan.

Bi sari emango dituzte Akadantz lehiaketako kategoria bakoitzean: 300 euroko sari bana jasoko dute urban dance zein esperimentaleko lehenengo sailkatuek, eta 150eko bana bigarren saria eskuratzen dutenek. Urban dance estiloko bi saridunek, gainera, beste sari berezi bat eskuratuko dute: martxoaren 25ean Bilbao Arenan jokatuko den Break On Stage lehiaketan parte hartzea.

Aurten ere, jaialdia sortu zen herrian, Elorrion, autobusa jarriko dute Break On Stage gozatzera Bilbora joan gura dutenentzat. Iaz, lau autobus bete zituzten Elorrioko gazteekin bakarrik. "Gero eta gazte gehiago erakartzen dute dantza mota hauek", Garaizabalen berbetan.

## 70eko hamarkadako bertsioen gaua antolatzen

**> MUSIKA** A. E.

Durangaldeko musika taldeen 70eko hamarkadako kanten bertsioen jaialdia antolatzen dabiltza Durangoko Platerueneann. Jaialdian parte hartu gura duten taldeek martxoaren 1era arte dute izena emateko aukera: *kultura@plateruena.net* helbidera idatzita. Izena emateko, taldekideen erdiak eskualdekoak izan behar direla ipini dute baldintzatzat. Gutxienez seik eta gehienez hamar taldek joko dute jaialdian. Gehiagok izena emanez gero, zozketa bidez erabakiko dituzte talde parte-hartzaileak.

# Durangaldeko hainbat bertsolari eta bertsozale, taldekako txapelketan

Taldekako bertsolari txapelketa antolatu du Bizkaiko Bertsozale elkarteak

**> BERTSOLARITZA** I. E.

Taldekako txapelketa berri honetan jai-giro informalean jarduteko aukera eskaini gura die Bizkaiko Bertsozale elkarteak bertsozaleei. Ekainera bitartean egingo dituzte txapelketako saioak, eta horietan bertsolari, gai-jartzaile, epaile eta laguntzaile rolak beteko dituzten kideek osaturiko 30 taldek eman dute izena. 200 parte-hartzailetik gora izango ditu Bizkaiko taldekako txapelketa horrek.

Zabala izango da Durangaldearen ordezkaritza txapelketan: eskualdeko 40 bat bertsozale arituko dira, bost taldetan. Durangon *Bratva* taldea sortu dute, *Eta abarrak*... Zornotzan, *Koipelustre's* Abadiñon, *Tire!* taldea eratu dute Berrizko eta Garaiko hainbat bertsozalek, eta Iurreta ere elkartu da txapelketan parte hartzeko.

> 200 parte-hartzailetik gora izango ditu ekainera arte egingo duten Bizkaiko taldekako txapelketak

2015ean txapelketaren inguruan abiaturiko gogoetatik eratorritako ekimena da Bizkaiko taldekako bertsolaritza txapelketa hau. "Oinarrian eragin" gura du Bizkaiko Bertsozale elkarteak ekimen honegaz, "bertso eskolak eta eskualdeen arteko harremanak indartu". Antolatzaile, epaile eta gai-jartzaile berrien parte hartzea bultzatzeaz gain, "bertsolari hasi berriei plazarako bidea erraztea" gura dute, "eta arrazoi desberdinengatik ohiko txapelketan parte hartzeko motibaziorik ez dutenei aukera bat eskaini".

## GEURE DURANGALDEA

**MARTIN LOIZATE SARRIONANDIA**
Ikaslea



### Otsailak 18, Saharar herriaren bi efemeride

Saharar meteorologoek ez dute elurrik iragarri biharko. The New York Times-ek, basamortuko elurtea kontatu baino hiru urte lehenagoko bonbardaketen aurrean isilik geratu zenak, gerraren berpiztea iragarri berri du . 79ko elurteek ez zuten lortu 76ko gertakaririk estaltzerik.

Ia mende oso bateko kolonizazioaren ondotik, 1975ean Espainiak Marokoko Hassan II.a erregearen eskuetan utzi zuen Sahara. Urte berean Saharako herri handienak inbaditzaile eta kolono berrien esku zeuden jada, eta sahararrek etsaiaren praktikak ezagutzen zituzten: lapurretak, hilketak, torturak, bortxaketak... Bortizkeria honen aurrean milaka sahararrek, zituzten ondasun apurrak aldean hartuta, errefuxiatu eremuetara alde egin zuten. 1976ko otsailaren 18an marokoar abiazioak errefuxiatu eremu hauek bonbardatu zituen, fosforo zuria eta napalma baliatuz eta, gutxienez, 2.000 hildako eraginez.

Hiru urte geroago, biharko egunez, 1979ko otsailaren 18an, zuriz tindatu zen berriz Saharako zerua. Errefuxiatu eremuan bizi zirenak, azken bonbardaketa oraindik hurbil, azkar ezkutatu ziren, norbera bere teilatupean. Baina ez zen fosforo zuria, historian ("memorian dugunetik behintzat" ohartaraziko zuen biharamuneko The New York Times-ek) lehen aldiz elurra ari zuen Saharako basamortuan. Hortik aurrerakoa ezaguna da; 1991n su etena sinatu zuten Marokok eta Fronte Polisarioak, hurrengo urtean autodeterminazio erreferenduma egiteko baldintzarekin, oraindik Marokok onartu ez duena.






# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea, behea eskuma**
**48220 MATIENA-ABADIÑO**
**Tel.: 944 657 132 - 686 906 374**

PSE: 119/13

**PABLO ZUBIZARRETA**
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

**Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO**
**pzubizarreta@gmail.com**

**Tel.: 946 550 049**
**Mug.: 695 784 963**

PSE: 57/16

## PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA**
*Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia*
**Juan Olazaran, 1 behea**
**48200 DURANGO**
ugatz@hotmail.es
**Tel.: 944 668 370 - 615 782 090**

PSE: 63/63

## PODOLOGIA

PODOLOGIA KLINIKA

**GOIATZ MURUA**
PODOLOGOA
**AINHOA ELORZA**
PODOLOGOA
*Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*
**Monagotorre, 4 - behea**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 203 630**

PSE: 148/13

## ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**
*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*

*Obesitatea-zelulitisa,*
*Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...*
*Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

**Txatxiena, 6**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 810 387**

PSE: 16/09

## OPTIKA

keinu
optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

PSE: 162/13

## ODONTOLOGIA

clínicadentalhortzklinika

**B. UNAMUNZAGA**
**E. ETXEBARRIA**
*ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALIZATUA*
**Muruetatorre, 2C - behea**
**48200 DURANGO**
*uecdental@gmail.com*
**Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454**

PSE: 145/13



**J.L. URRETA ZABALO**

*MEDIKU ESTOMATOLOGOA*
*IMQ, PADI (umeen hortz programa)*
*Ortodontzia*

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 812 200**

PSE: 112/13

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA
• Antsietatea, estresa, fobiak
• Depresioa • Eskola arazoak
UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK
**Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO**
**jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz**
**Tel.: 946 033 246 - 629 245 728**

PSE: 62/11

# Bultz: “Ibilbidearen hasieran gaude, eta motibazio oso handia dugu une honetan”

Durangoko Landakoguneko 40 Minutu Rock jaialdian joko du, bihar, Abadiñoko Bultz! taldeak



Lehenengo kontzertua eskainiko du Abadiñoko laukoteak, Durangoko musika jaialdian.

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Euskal Herriko leku guztietatik etorritako musikazaleen bilgune izango da Durangoko Landako Gunea, bihar, 10:30ean hasita goizaldera arte. Jaia, zuzeneko musika eta aldarrikapena uztartuko dituzte 40 Minutu Rock jaialdian. Kaotiko, Willis Drummond, Las Tea Party, Arkada Social, Enkore, Huntza, Skakeitan, Ze Esatek!, KOP, Anestesia eta Kaos Urbano taldeekin, Abadiñoko Bultz! talde berria ere arituko da Landako Gunean.

Jaialdi horrek erakartzen duen entzulego zabalaren aurrean beraien kanta berriak aurkezteko aukera izango dutelako, “oso pozik eta nahiko urduri” daudela adierazi dute Bultz! taldeko kideek. “Aukera itzela da guretzat festibal honetan jotzea”, azpimarratu dute.

Kantak ezezik, laukotea bera ere aurkeztuko dute zelanbait abadiñarrek Durangon, bihar. Bultz! taldearen lehenengo zuzenekoa izango da 40 Minutu Rock jaialdiaren barruan eskainiko dutena. Izan ere, taldekideek beste talde batzuetan urteetako esperientzia duten arren, sortu berria baita proiektu hori.

Iazko urte amaieran, taldearen lehenengo diskoa kaleratzeko finantziazioa lortzeko *crowdfunding* kanpaina bat abiatu zuten. Lehenengo disko horretarako prestatutako kantak eskainiko dituzte bihar, Landako Guneko kontzertuan.

Jendeak taldeari hasiera-hasieratik egindako harreragaz eta finantziazio kolektiborako deiak jaso zuen erantzunagaz oso pozik daude taldeko lau musikariak. “Izugarria izan da hainbeste jendek gugan konfiantza izatea, eta horrek indar handia ematen ditu”, adierazi dute. Oso eskertuta daude beraien lehenengo diskoa izango dena kaleratzeko jendeak aurrez eman dien laguntzagatik.

> Laster espero dute ahotsak grabatzen amaitu eta taldearen lehenengo diskoa kaleratzea

> “Izugarria izan da hainbeste jendek gugan konfiantza izatea; horrek indar handia eman digu”

Musikazaleek egindako ekarpen ekonomikoari esker, lehenengo diskoaren grabazioa burutu dute Bultz! taldekoek. Grabaketa amaitutzat emateko arreikusitakoa baino denbora gehiago behar izan badute ere, laster espero dute ahotsak grabatzen amaitu eta diskoa kaleratzea. Diskorako egindako lanagaz “oso gustura” daude.

Durangoko 40 Minutu Rock jaialdiko estreinaldi handiaren osterako beste kontzertu batzutarako eskaintzak jaso dituzte, dagoeneko, Euskal Herriko hainbat txokotatik. Hainbat lekutan gura dute Bultz! zuzenean entzun. Eta aritzeko gogotsu daude taldekideak. “Ibilbidearen hasieran gaude, eta une honetan motibazioa oso handia da. Batzuentzat esfortzua diren entseguak, adibidez, plazerra dira guretzat”, adierazi dute.



Rosa Martinez-Alcocer Frida Kalhoren paperean ikusteko aukera izango da.

# ‘Antzerkia aretoan’ programazioa eskainiko du Iurretako Udalak

Maiatzera arte, zazpi antzezlan ekarriko ditu programazioak Ibarretxera

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban

Maiatzera bitartean Iurretara zazpi antzerki emanaldi ekarriko dituen programazioa aurkeztu dute, asteon, Ibarretxe kultur etxean. Iñigo Salineroren *Hay dos vidas, una buena y una mala* bakarrizketak zabalduko du programazio hori, gaur, 19:00etan. *Txaflas* izeneko 40 urteko gizona protagonista duen komedia da obra hori.

Iñaki Totorikaguena alkateak, Pili Jimenez kultur teknikariak eta Marijo González Anderebide elkarteko kideak aurkeztu dute hirugarren urtez eskainiko duten *Antzerkia aretoan* programazio honen 2017ko eskaintza.

Alkateak azaldu duenez, Anderebide emakume elkartearen laguntzagaz antolatu du udalak antzerki egitarau hori: datozen hileetan Ibarretxe kultur etxean ikusgai izango diren obren hautaketa egiten lagundu dute Anderebideko kideek, eta emanaldi egunetan ere kolaboratuko dute antolakuntza lanetan.

Emakume elkartearen eskutik, baita, kontziliazioa bultzatzea helburu duen eskaintza egingo dute, aurten, lehenengoz, antzerki programazio honi lotuta. Gurasoak antzerkian dauden bitartean, 3 eta 12 urte arteko umeak ludotekan sormena lantzeko tailerretan jolasten egoteko aukera eskainiko dute.

### Ume zein helduentzat

Ikuslego helduari eta umeei zuzenduriko antzezlan bana eskainiko dute hilero, *Antzerkia aretoan* egitarauaren barruan, Ibarretxen. Umeei zuzenduriko antzezlanak *Azken eguzkilorea*, *Ahatetxo itsusia* eta *Baserrian amets* dira, eta publiko helduari zuzendurikoak gainontzeko lau obrak. Durangaldeko sortzaileen lana delako, azpimarragarria da martxoaren 17ko *Frida* obraren emanaldia. Eskualdeko hainbat antzokitan arrakasta handiz eskaini eta gero oholtzaratuko du Frida Kalhori buruzko bere bakarrizketa Rosa Martinez-Alcocerrek Iurretan.

Doakoak izango dira emanaldi guztiak, baina saioa baino bi aste lehenago eskuragai ipiniko dituzten gonbidapenak beharko dira emanaldira sartzeko. Alkateak jakitera eman duenez, iurretarrek lehentasuna izango dute gonbidapen horiek eskuratzeko, eta kultur etxearen edukiera bete arte banatuko dituzte.

EGITARAUA

**Otsailaren 17an, 19:00etan**
• Hay dos vidas, una buena y una mala

**Martxoaren 10ean, 17:00etan**
• Azken eguzkilorea

**Martxoaren 17an, 19:00etan**
• Frida, viva la vida

**Apirilaren 7an, 19:00etan**
• La Percha

**Apirilaren 21ean, 17:00etan**
• Ahatetxo itsusia

**Maiatzaren 5ean, 19:00etan**
• Sarean kateatuak

**Maiatzaren 12an, 17:00etan**
• Baserrian amets

Kirola

**Iraia Garcia Etxebarria** | Korrikalaria | Zornotza, 1982

# "Inoizko emaitzarik onenak lortu ditut"

Euskadiko txapelketan urrezko domina eta Europako taldekako txapelketan zilarrezkoa lortu ditu Iraia Garciak.



> KIROLA Maialen Zuazubiskar

**Iraia Garcia zornotzarrak sasoi betean dagoela erakutsi du azken lasterketetan. Aurreko asteburuan Berrizen jokatutako lasterketan bigarren postua eskuratu zuen, Majida Maayouf marokoarrarengandik bost segundora helmugaratuz. Horrez gain, Euskadiko txapelketa irabaztea lortu zuen Irene Loizate eta Gurutze Frades Durangaldeko korrikalarien aurretik.**

**Nola joan zen Euskadiko txapelketa?**
Egia esan, lasterketa oso ondo joan zen. Haize izugarria zebilen, eta lasterketa hasi aurretik ingurukoek lasterketako lehen partea lasai hartu eta taldean joateko esan zidaten.

**Baina, gomendioei kasu handirik egin gabe, lasterketa buruan ikusi zintugun hasiera-hasieratik.**
Bai, horrela da. Lasterketa oso geldo zihoan, eta nik proba gogortzea behar nuen, ez bainaiz oso arina. Orduan, lasterketa buruan jartzea erabaki nuen. Hala ere, erritmoa jartzen hasi nintzenean, lasterketan zeuden bi marokoarrek aurrera egin, eta nik atzeko taldetxotik tiraka jarraitu nuen.

> *"Oso pozik nago Euskadiko txapelketan egin nuen lasterketagaz"*

**Baina, azken itzulian, Samira Abbouche marokoarra aurreratu eta Maayoufengandik bost segundora helmugaratzea lortu zenuen.**
Izugarria izan zen. Momentu oro neure buruari pixkatxo bat gehiago eskatzen nion, eta Abboucherengana heldu eta atzean uztea lortu nuenenan ezin nuen sinetsi. Oso pozik nago emaitzagaz.

**Euskadiko txapelketako podiuma Durangaldeko hiru korrikalarik osatu zenuten.**
Momentu honetan, Euskadin Durangaldeko korrikalariak oso ondo gabiltza. Durangaldea krosaren gorenean dago. Euskadiko lasterketetan, bai kros laburretan eta baita kros luzeetan ere aurrean egoten gara, eta hori dagoen maila onaren seinale da.

**Bestalde, duela pare bat aste, Europako Txapelketa jokatu zenuen. Nola gogoratzen duzu?**
Oso urduri egon nintzen arren, oso polita izan zen Europako txapelketa hura bizitzea. Banekien herrialde bakoitzak taldeurik onena eramango zuela lasterketara, dituzten korrikalaririk onenak.

**Eta nola joan zen lasterketa?**
Oso ondo joan zen. Nire aurreikuspenak ez ziren bete, azkenengo bukatuko nuela sinetsita nengoen, eta ez, sailkapenaren erdi inguruan bukatzea lortu nuen proba. Beraz, pozarren nago.

**Gainera, taldeka Europako azpitxapeldun gelditu zineten.**
Bai, bigarren postu hori lortzea ikaragarria izan zen. Taldeko lanean inoiz lortu dudan emaitzarik onena eskuratu ahal izan dut BM Bilbao taldeagaz.

> *"Animikoki gaizki nengoen, eta urrian lasterketak uzteko puntuan egon nintzen"*

**Azken lasterketetan maila bikainean zabiltza.**
Egia esan, bai, baina aitortu behar dut ez nuela horrela ibiltzea espero. Ekainean ebakuntza bat izan nuen, eta bi hilez geldi egon behar izan nuen. Horren ondorioz, ez nintzen oso ondo egon animikoki, eta urrian lasterketak uzteko puntuan egon nintzen. Hala ere, ingurukoen laguntzagaz jarraitzea lortu eta esan dezaket inoizko emaitzarik onenak lortzen nabilela.

**Otsaileko azken asteburuan Espainiako Txapelketak jokatuko dira Valentzian. Bertan ikusiko zaitugu?**
Bai, Espainiako Txapelketan parte hartuko dut. Hasiera batean kros luzean parte hartzekoa nintzen arren, azkenean, kros laburrean arituko naiz.

**Zer dela-eta aldaketa hori?**
Taldeak kros laburreko lasterketan postu on bat egitea gura du, momentu honetan taldea oso indartsu baitago. Eta estatuko txapelketara bizkaitar bat derrigorrez eraman behar dutenez, domekako lasterketaren ondoren Espainiako txapelketan proba luzean barik, laburrean aritzeko proposamena egin zidaten, eta baiezkoa eman nien.

**Erronka berri horren aurrean, nola ikusten duzu taldea?**
Taldea oso indartsu dago momentu honetan, eta Valentziako proban puntuatuko dugun lau korrikalariak sasoi onean gaude. Majida Maayouf, Zulema Fuente eta Judit Pla eliteko korrikalariak dira eta seguru nago hiru hauek lasterketa buruan ibiliko direla.

**Eta zure burua, nola ikusten duzu?**
Egia esan, inoizko emaitzarik onenak lortu ditudan arren, nire sentsazioak ez dira onenak. Baina, pasa den domekako emaitza ikusita gogotsu nago erronka berri honi aurre egiteko. Gustatuko litzaidake dudan momentu on hau baliatu eta lehenengo hamabosten artean neure burua ikustea.

**Taldekako podiumean egon zaitezketela uste duzu?**
Bai, lortu daitekeela uste dut. Lehen esan dizudan moduan Maayouf, Fuente eta Pla oso indartsu daude, eta nire aurreikuspenek hutsik egiten ez badidate, podiuma lortu dezakegula uste dut. Hori bai, horretarako gogor saiatu beharko dugu, eta lau korrikalariok lehenengo hamabosten artean sailkatzea lortu beharko dugu.

**Etorkizunera begira, baduzu erronkarik?**
Egia esan, badut erronkaren bat begi bistan. Irailean beterano kategoriara pasatuko naiz, eta datorren urtean Malagan jokatuko den mundialean 2.000 metroko oztopodun proban lan txukuna egitea gustatuko litzaidake. Urte hauetan denetan ikusi dut gauzak lortu daitezkeela nahi izanez gero. Beraz, ez naiz saiatu gabe gelditukо.

# "Berdin da postua; triatloiagaz gozatzen duten denak txapeldunak dira guretzat"

Zornotzar batzuek Amorebieta-Etxano Triatloi Taldea sortu dute herrian kirol hori sustatzeko



Gontzal Elorriaga, Jaione Agirre, Belen Lakuntza eta Mikel Diez triatloilariak.

> TRIATLOIA J.D.

Triatloia kirolari sakrifikatuentzat bakarrik den ustea apurtu gura dute sortu berria den Amorebieta-Etxano Triatloi Taldeko kideek. Prestakuntza eskatzen du, bai, baina zein kirolek ez? Emaitzei begiratu barik, kirola egiteko edo kirolarien arteko harremanak sustatzeko erreminta moduan ikusten dute triatloia. "Berdin da lehenengo eta azkenengo amaitu. Triatloiagaz gozatzen duena, proba bat amaitzen duena zein parte hartzera animatzen dena txapelduna da. Guretzat horiek denak txapeldunak dira", zehaztu du Jaione Agirrek talde berriaren filosofia.

Agirregaz batera, Gontzal, Elorriaga, Mikel Diez, Belen Lakuntza eta Edu Lakuntza zornotzarrek sortu dute triatloi taldea. Eduk du esperintziarik gehien, eta taldeko idazkaria da. Gainerako laurak berriak dira triatloiaren mundu honetan. Iruñeko triatloian estreinatu ziren, iazko abuztuan, eta handik egun bira taldea sortzeko lehenengo batzarra egin zuten. Harrezkero parte hartu duten probek euren filosofian sendotzeko balio izan diete. "Guk ez dugu taldeko partaide izateko gutxiengo mailarik eskatzen. Zelan eskatuko dugu, ba, geu gara-eta lehenengo herrenak!", dio umoretsu Agirrek.

**Bidea eginez ikasten**

Esperientzia faltan, "ilusioa" dute proiektu berria eraikitzeko gidari. "Bidea egiten gabiltzan heinean ikasten ari gara", dio Mikel Diezek. Zornotzarrei zein herritik kanpokoei atea irekita duen taldea dira. Zenbat eta jende gehiago, komunitate emankorragoa sortzeko osagaiak izango dituztela azaldu dute. "Sarritan jendea bakarrik irteten da entrenatzera, edo etxean geratzen da. Komunikazio bideak eskainita, hori aldatu daiteke. WhatsApp talde bat sortuz edo beste bide batzuen bidez, triatloilariak elkarrekin harremanetan jartzea da asmoa", dio Elorriagak. Animatzen direnen artean emakumeak ikusi gura ditu Belen Lakuntzak. "Probetan badaude maila handiko emakume triatletak, baina atzean joaten garen horiek falta dira".

Otsailaren 18an Sopelako duatloian parte hartzeko asmoa dute, eta horixe izango da talde moduan egingo duten estreinaldia. Dagoeneko badituzte taldeko jantzi propioak Maran Kirolak, Lakuntza soinu tresnak eta Ordobiren laguntzari esker.

Triatloi taldeari buruz gehiago jakin gura duenarentzat helbide elektronikoa (*aetriatloi@gmail.com*) eta 697 422 810 telefonoa bideratu dituzte.

## Aspuru munduko azpitxapeldunaren kontra, Abadiñon

> TRINKETA J. D.

Abadiñoko Tornosolo trinketeak goi mailako jaialdia hartuko du zapatu honetan. Aurreikusita dauden partidu denen artean, Asier Aspuru abadiñarrak eta David Alvarez *Stich* mexikarrak jokatuko dutena da bereziena. Alvarez Mexikoko txapelduna eta munduko azpitxapelduna da buruz buru. Aspuru bere ibilbideko unerik onenean dago iaz GRAVNI eta Bizkaiko txapelketak irabazita, biak buruz buru. Aurretik, Bizkaiko kluben arteko txapelketari dagozkion hainbat partidu ikusi ahalko dira 16:00etan hasiko den jaialdian.


Iaz, buruz buru, GRAVNI txapelketa irabazi zuen Asier Aspuruk.

**ADITUAREN TXOKOA**

GARAZI SAMPEDRO
Mendi lasterketak



**Lehen pausoak**

Mendian korrika aritzen den lagunarekin geratu zara mendira joateko. Atzoko bere mezua: *8etan geltokian*. Nagiaren aurkako borroka irabazi eta haizea aurpegian sentituz zoazte auzoan gora. Hasi zaizu bere azken mendi irteeraren nondik norakoak kontatzen. Begietatik darion pasioa ikusita, erotzen hasia dela pentsatu duzu. Zerk bultzatzen du Anbotora geroz eta azkarrago igo nahi izatera? Zergatik Alpeetara joan kilometrotan hiru zifra dituen lasterketa batean parte hartzera? Zalantza pentsamendu horrekin sartu zarete pagadian, eta egiari zor, kuriositate puntu batekin ere bai: zer ote dauka, ba, kirol horrek laguna hainbeste zaletzeko? Basoko orbela zapaltzean txikitako oroitzapenak etorri zaizkizu, gurasoekin jolasean mendira poz-pozik joaten zinenekoak. Poztasun horren antza ote du lagunaren zaletasunak?

Eguzkia mendi bien arteko lepotik lotsati irteten ikustean zirrara berezi bat sentitu eta etxetik goiz irtetearen saria dela esan diozu lagunari. Berak, irribarre. Aldapa gogortzen doan heinean, arnasestuarekin jolasean zoaz, orain moteldu, orain bizkortu…

Iritsi zarete tontorrera. Kasik oharkabean! Ikusmira paregabearen mozkorra pasa zaizunean mokadutxoa jan eta beherako bidea hasi duzue. Lautadatxoan korrika txikian joateko gonbita egin dizu eta bazoazte tipi-tapa auzoko baserriko iturriraino. Eztarria freskatu, arnasa moteldu… hau gozatua!

Agurtu zaretenean, *datorren zapatuan Gorbeialdera?* berbak zure ahotik irten dira.






GAURSA
CAR WASH
AUTOAK GARBITZEKO GUNE
BERRIA
Bakarra Euskadin
PREMIUM GARBIKETA TUNELA
AUTOZERBITZU GARBIKETA-BOX ETA XURGAGAILUA
CAR WASH
GAURSA
CAR WASH
egunero
9 etatik 20 etara
irekita
Arriandi Auzoa, 12 Iurreta (Bizkaia) Nissan eta Renault Gaursa instalazioetan

# “Hasieratik jakin dugu Ohorezko Mailari eusteko sufritzea egokituko zitzaigula”

## Markel Aperribayren estreinako urtea da Zalduan, eta mailako bigarren goleatzaile nagusia da



Aperribay Zaldibarko Solobarria futbol-zelaian, asteleheneko entrenamenduan.

> FUTBOLA Joseba Derteano

Zaldua Ohorezko Mailara igo zen iaz. Bizkaiko kategoriarik altuena erronka handia izaten da talde igoberrientzat, eta zaldibartarrak mailari eusteko borrokan sartuta dabiltza denboraldi hasieratik. Bide horretan, Markel Aperribayren (Durango, 1990) golak dira taldeko arma nagusienetako bat. Sailkapeneko azken hirugarren dagoen taldeak mailako bigarren goleatzailerik onena dauka. Orain arte 10 gol sartu ditu durangarrak.

“Hasieratik bagenekien mailari eusteko sufritzea egokituko zitzaigula” adierazi du maila berean ari den Iurretakotik aurten Zalduara batu den jokalariak. Baina aurtengoa bereziki denboraldi konplikatua da behealdeko talde guztientzat. Izan ere, Bigarren B Mailako jaitsiera postuetan hiru euskal talde daude: Amorebieta, Sestao River eta Zamudio. Hirurak jaisten badira, gainerako maila denei eragingo die. “Baliteke Ohorezko Mailari eusteko azken seigarren geratu beharra”, aurreikusten du Aperribayk.

Horregatik, “partidua edozein dela ere, beti zerbait positiboa ateratzen saiatu behar dugu aurrerantzean”, gaineratu du. Batez ere etxetik kanpora hobetu beharra daukate, orain arte eskas dabiltzalako. Etxean puntuak hirunaka batzen saiatu behar dute, orain arte 10 partidutik sei berdindu egin dituzte eta.

Zaldua golik gehien sartu duen zazpigarren taldea da. 28 gol 21 partidutan. Badute bolbora aurrean. Aperribayk eta Borja eta Javi Castrillo lehengusuek hirukote golegilea osatzen dute. Baina defentsako lanean eskas dabiltza. Maila osoan golik gehin jaso duten taldea dira, 44 guztira. Horregatik, “defentsako lana hobetzea” da lanetako bat. “Gol gutxiago jasotzen baditugu izango ditugu partiduak irabazteko aukerak”, dio jokalari durangarrak.

Aperribayk, gaztea bada ere, hainbat talde ezagutu ditu. Ezkurdin hasi zen. Ostean, Iurretakon eta Durangoko Kulturalean aritu da. “Entrenatzaileak bere konfiantza erakutsi zidan eta hori izan zen Zalduara etortzeko arrazoietako bat. Taldeko jokalari asko ezagutzen nituen. Egia esan, gustura nabil giro ona daukagu eta”, adierazi du.

# Herri Krosa egingo dute etzi Durangoko kaleetan

## 10 eta 5 kilometroko ibilbide bana daude aukeran



Iaz 400 bat parte-hartzaile batu zituen ekimenak.

> HERRI KROSA J.D.

Durangoko Herri Krosak bosgarren aldia egingo du domeka honetan. Urtero legez, ibilbide bi egongo dira aukeran: hamar kilometroko bat —ibilbide homologatua—eta bost kilometroko laburrago bat.

Kirolerrota kluba antolatzaile eta Sekulebedarra kirol taldea laguntzaile dituen proba 11:00etan hasiko dute, Ezkurdi plazatik. Durangoko kale askotatik igaro ostean, Ezkurdin bertan egongo da helmuga. Izen-ematea aurretik egiteko aukera dago, baina egunean bertan ere egin daiteke, proba hasi baino lehenago, 10 euroren truke.

### Parte-hartze zabala

Urtero giro ona eta parte-hartze zabala izaten du Durangoko Herri Krosak. Iaz 400 bat lagun animatu ziren. Hamar kilometroko lasterketa Gotzon Solaegik eta Janire Arribalzagak irabazi zuten. Bost kilometrokoan Asier Aranburu nagusitu zen.

# Espainiako txapelketan podiumera igo da Ajuria

## Esprint modalitatean hirugarren amaitu du

> MENDI ESKIA J.D.

Mendiko eskiak hainbat modalitate ditu, eta horietako askotan junior mailako onenen artean dabil Aitor Ajuria otxandiarra. Orain asteburu bi Espainiako txapelketa bi jokatu zituen Cerlerren (Huesca) Mendi Eskiko Euskal Taldeagaz. Esprint modalitatean hirugarren amaitu zuen, eta erlojuz kontrakoan, bosgarren.

Urtarrilaren erdian, berriz, Espainiako Banakako Txapelketan aritu eta seigarren sailkatu zen Miru Gain Mendi Elkarteko gaztea.

### Bizikletan Eiserregaz

Aurten txirrindularitza ere probatuko du Ajuriak. Durangaldeko Eiser-Inforlur taldeagaz lasterketa batzuk lehiatuko ditu maiatzetik aurrera.



